

## HARAN SUBATLANTIKOAK

ARABA

A.7

### Zadorra ibaija



**Zadorra ibaiak Arabako lurraldea** banatzen du, Entzia inguru mendietako iturburutik Ebro ibaiaren aho-raino. Zadorra ibaiaren ibilguaren lehen zatiak ubideratze ugari ditu, eta nekazaritza—ustiapen askoren artetik igarotzen da. Uribarri—Ganboa urtegiaren presatzen denean lortzen du emari handiena eta, ekologiaren aldetik ere, orduan da interesgarriena. Zati batzuetan makalek eta baratzeek

haien tokia hartu duten arren, ibaiaren inguruneari loturiko landare—espezie ugari (haltzadiak, lertxundiak, lizardi—zumardiak, etab.) osaturiko basoak babesten ditu ibaiertzak. Uren kalitatea mantendu izanak fauna—komunitate aberatsa kontserbatzea ahalbidetu du; azpimarratzekoak dira, besteak beste, igaraben eta bisoi europarren populazioak, arrisku larrian baitaude.



FIGURA ETA NEURRI BABESLEAK

- IKT (Interes Komunitarioko Tokiak).

### LANERAKO GAIK

- Ibaiaren zatiak, haranaren forma, ibilguaren ezaugarriak.
- Uren kalitatea: goiko ur—lasterraren eta beheko ur—lasterraren arteko konparaketa.
- Ibaiko ekosistema: urari loturiko biodibertsitatea.
- Euskal Herrian arriskuan dagoen fauna: bisoi europarraren adibidea, kanpoko faunaren sarrera, bisoi amerikarra.
- Ibaiaren eta erribereen erabilerak: ureztapenak, kirol—arrantza, baso—ustiapenak.
- Ekosistemak jasandako eraginak: ubideratzeak, deforestazioa, ureztapenak, isurketak.
- Urak hartzeko arrisku handia duten guneak: ibaiko ekosistemarentzat jasangarriak diren konponbide—proposamenak.
- Kontsumoa: uraren kontsumoa egungo gizartean, kontsumoaren murrizketa, erabilerak eta gehiegizko erabilerak, Zadorra ibaiko urtegiak.
- Herri bat ibaiaren ondoan, Trasponte: historia, kultura—ondarea, ibaiari loturiko giza jarduera.